Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero 388

Urtarrilak 1, 2021

Bidasoa eskualdean emakumeen errugbi taldea osatzea, Lea Etxebarrietaren ametsa

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Gabonetako loteria
4-5 Eguberrietako argazkiak
6-7 Greziako migratzaileak
8 Kirolak: Lea Etxebarrieta
9 Kirolak: Gurutz Aginagalde
10 Irun historia erraldoia
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Martindozenea Gaztelekua
14 iGazte
15 Agenda

caser cuidados

INFORMA ZAITEZ!

Etxez etxeko laguntza

EDOZEIN EGOERATAN:
- Menpekotasunean
- Ahalmen urritasunean
- Konbaleszentzia edo gaixotasunean

EDOZEIN DENBORAZ
- Aldi baterakoa
- Iraunkorra

EDONON LAGUNTZEN
- Etxean edo etxetik kanpo
- Ospitalean
-Egoitzan
-Enpresan

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

Orain dela mende bat Irunen albiste ziren gertaerak errepasatzeko, duela 100 urte publikatutako aldizkariak aztertzea aproposa da. 1921eko urtarrilaren 2an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkaria argitalpen egokia izan daiteke horretarako. Aldizkariaren 279. zenbakia "Olvidos censurables" titulua daraman artikuluarekin hasten da, non "R.E" hizkiekin sinatzen duen idazleak Irunen euskarak eta euskal kulturak bizi duen beherakada salatzen duen. Jarraian, T. hizkiaz sinatutako artikuluan kolaboratzaileak 1921. urteari ongi etorria egiten dio, txertoarekin aurreko baino urte hobea izango dela pentsatuz. Ostean, "La de los ojos de color de uva" izenordearekin sinatutako idatzi labur batean, emakume batek Irungo Kasinoko Zuzendaritza Batzordeari eskerrak ematen dizkio Gabonetan hiriko familia eta etxe behartsuetara janaria bidali izanagatik. Jarraian, "Buenos Amigos" elkarteak hirian egiten duen lana aipatzen da.

Kirol kronikan, aldiz, Gabonetako partiduen emaitzen berri ematen da, horien artean, Pariseko taldearen aurka jokatutako partiduaren nondik norakoak azalduz. Ondoren, Stefaniani familiaren etxean ospatutako festaren xehetasunak eta bertan parte hartu dutenen zerrenda irakur daiteke. "Alfilerazos" atalean bi berri labur argitaratzen dira. Batetik, hirian laster argitaratuko den aldizkari berriaren beharra eta bideragarritasuna zalantzan jartzen da eta, bestetik, mendian suhiltzaileek baserritarren laguntzarekin itzalitako sute baten harira hirian suhiltzaile kidegoak bizi duen egoeraren inguruan gogoeta egiten da. Aldabetarrak Irunen azken urteetan zehar galdutako ohiturei buruz idazten du berak sinatutako testuan, batez ere, Alardea edo Inauteriak bezalako ohitura eta ospakizunetan arreta jarriz. Ostean, Kale Nagusiaren amaierako eremua zabaltzeko beharraz ohartarazten du "U." hizkiarekin sinatzen duen aldizkariko kolaboratzaileak, izan ere, bertatik igarotzen zen trafiko kopuru handiaren aurrean hiriko espazio hori egokitzea eskatuz.

Ohi baino zabalagoa den "Notas Municipales" atalean azken udal bilkuran eztabaidatutako gaien laburpena argitaratzen da. "El Capitán Noriega" artikuluan "El Bidasoa" astekariko irakurlea zen eta zendu berri den lagun bat agurtzen du aldizkariko kazetariak. Azkenik, "Noticias" eta antzerkien programazioarekin amaiera ematen zaio aldizkariaren zenbakiari publizitate orrialdearen aurretik.

Argazkiak:
G34402: Irungo suhiltzaileak Juncal eliza aurreko plazatxoan.
G2132: "Buenos Amigos" elkarteko kideen talde argazkia, elkartearen egoitza zen Patronatuaren aurrean, Juncal plazatxoan kokatuta egon zena.
G57794: 1903. urtean Euskararen Jaien inguruan antolatutako prozesioa, Eliza kaletik.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Pandemiak Gabonetako Loteriaren salmenta baldintzatu du

Osasun krisialdiak zeharkako kalteak eragin ditu sektore askotan. Gabonetako Loteriaren salmentek beherakada garrantzitsua izan dute aurten Irunen Colón ibilbideko 28. zenbakian kokatutako loterien administrazioko Maria de la Serna eta Vanesa Solis loteria-saltzaileek azaldu dutenez.

Orain dela zenbat urte ireki zenuten loteria-administrazioa?
Maria: Hasieran paper-denda bat izan nuen, baina loteria-administrazioa 2004. urtearen inguruan ireki nuela esango nuke.

Nolako eragina izan du osasun krisialdiak Gabonetako Loteriaren salmentan?
Maria: Loteriaren salmentan sekulako eragina izan du pandemiak. Batetik, denbora batez denda itxita izatera behartu gintuztelako. Bestetik, hiriko elkarte, GKE, entitate eta kurtso amaierako bidairako eskolek ohi baino loteria-txartel gutxiago eskatu dituzte. Orokorrean, gure kasuan loteriaren salmenta %30 murriztu dela esango dezakegu.

Vanesa: Ostalaritzaren itxierak ere zeharka eragin digu, izan ere, tabernak loteria gehien saltzen den hilabeteetan itxi dituzte.

Jendearen erosketa ohituretan aldaketarik nabaritu duzue?
Maria: Jendeak loteria gutxiago erosi du aurten eta azkeneko momentura arte itxaron dutela nabaritu dugu. Inork gutxik jakingo du tabernen itxierak loteriaren salmentan zelako eragina izan duen. Leihatilan dezimoak erritmo onean saldu dira, baina, arazo nagusiak taberna eta elkarte ezberdinek hartu ez dituzten partizipazioak izan dira, normalean zenbaki osoak edo loteria kopuru handiak erosten dizkigutelako.

Vanesa: Leihatilan bezero askok ohi baino loteria gutxiago erosi dutela onartu digute. Oro har, jendeak diru gutxiago duela nabaritu dugu. Dena dela, erosle gehienak ohiko bezeroak izan dira.

Hortaz, ezbeharrak gertatuta ere, jendeak ez du loteria gehiago erosten?
Maria: Kopuru berdina erosten dute, baina, ilusio edo esperantza gehiagorekin erosten dela ikusi dugu, ezbeharrek zortea erakarriko dutela pentsatuz.

Urtea aurrera ateratzeko lan gehiago egin behar izan duzue aurten?
Vanesa: Itxitako tabernetan gure administrazioan toki horietako loteria eskura zezaketela jakinarazteko kartelak ipini genituen. Ekintza horri esker zerbait gehiago saltzea lortu dugun arren, tabernetan zuzenean gehiago saltzen da, jendeak zuzenean zenbakia ikusten duelako.

Maria: Loteria hori gure kabuz saltzen saiatu gara, baina, arrakasta gutxi izan du.

Nola egin ohi duzue loteriaren eskaria?
Maria: Martxo inguruan salduko ditugun zenbakien erreserba egiten dugu eta uztaileko lehen astean iristen zaigu loteria. Urri inguruan, berriz, erreserba asko bertan behera gelditu zitzaizkigun, jada zenbakiak eskatuta eta administrazioan geneuzkanean.

Vanesa: Aurten inoiz baino loteria gehiago itzuli behar izan dugu. Hurrengo urteko loteria bidaltzerakoan aurreko urtean saldutakoan oinarritzen dira, beraz, beldurra ematen digu dator urteko eskaera egiteko izan ditzakegun oztopoak.

Zeintzuk izan dira aurten gehien eskatutako zenbakiak?
Maria: 20 zifrekin amaitzen ziren zenbakiak eskatu dizkigute. Bereziki, 014320 zenbakia izan da gehien eskatu digutena, hau da, berrogeialdiaren hasiera datarena, baina, guztiz agortuta zegoen.

Vanesa: 72 zifrekin amaitutako zenbakia ere asko eskatu digute, baina, "Peña Barcelonista"-ren zenbaki ohia zenez horregatik izan dela pentsatzen dugu.

Gabonetako Zozketan sariren bat banatu duzue?
Maria: Bai, sari txikiak, lehen bost sarien ehunekoekin edo lehen hiru sarien amaierarekin bat egiten zuten zenbakiei esker diru apur bat banatu dugu. 2014. urtean 5. saria banatu genuen.

Leihatilaren atzean bitxikeria eta istorio asko bizi ko dituzue, ezta?
Maria: Sinestezina dirudien arren Abenduaren 22ko goizean Gabonetako Loteria zozketarako loteria erosi nahi duen jende asko hurbiltzen zaigu. Beste asko zozketa amaitu aurretik saria kobratzeko asmoz hurbiltzen dira, oraindik zozketako sari nagusia atera ez bada ere.

Vanesa: Jende askok saritua izango den zenbakia eskatzen digu, aurretik sarituak izango diren zenbakiak asmatu edo saria duten zenbaki finkoak egongo balira bezla.

Loteria salmentaz gainera, bestelako zereginak dauzkazue?
Maria: Ia urte osoa ematen dugu Gabonetako zozketa prestatzen eta urte osoko diru sarreren %50a direla esan dezakegu. 3.500 serie iritsi zitzaizkigun eta 1.000 saldu gabe itzuli behar izan ditugu. Gainera, 15 urte dira administrazioei komisioak azkeneko igo zizkigutenetik.

Vanesa: Eskatutako loteria ordaintzeko hiru hilabeteko epea dugu eta zenbait urteetan loteria ordaintzen amaitu aurretik datozen urteko loteria eskatzen dugu. Loteria jaso aurretik nola banatuko dugun eta elkarte bakoitzari zein zenbaki dagokion antolatzen dugu. Zentzu horretan, salmenta puntu-mistoek administrazioek baino lan gutxiago dute loteria prestatzerako orduan.

Nola aurreikusten dituzu Haurraren Loteriaren salmentak?
Vanesa: Aurreko urteetan Gabonetako loteria Haurraren loteriarengatik aldatu ohi du jendeak zerbait irabazten duenean. Aurten jendeak dirua jasotzea nahigo du.

Maria: Murriztapenen gainetik, salmenta ona izatea espero dugu urteari hasieran on bat eman ahal izateko.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Pandemiara egokitutako Eguberrie

Irunen Gabonen inguruan data ia finkoa duten ekitaldi ugari antolatu ohi dira, urteko egun berezi hauetan zehar hiriko bazter guztiak Eguberrietako giroarekin zipriztintzen laguntzen dutenak. Aurten, ordea, osasun krisialdiaren eraginez Gabonetako hitzordu asko bertan behera gelditu dira, ohitura berriei lekua eginez.

Olentzero eta Mari Domingik ez dituzte urtero bezala hiriko kaleak zeharkatu haurren eskutitzak jasotzeko, baina, Amaia Kultur Zentroko agertokitik harrera beroa egin diete haurrei. Errege Magoak, aldiz, udaletxeko balkoira atera beharrean, urtarrilaren 3 eta 4ean Ficoba erakustazokako 3. pabilioira hurbiltzen diren haurrak agurtuko dituzte. Gutunak biltzeko sistemak pandemiara egokitu dira eta hiriko puntu ezberdinetan ipinitako postontzi eta online bidalitako gutunei esker Errege Mago zein Olentzero eta Mari Domingik eskakizun guztiak garaiz jaso dituzte. Oro har, mundu osotik edatu den gaitzaren ondorioz, hurbilekoak inoiz baino hurbilago sentitzea eragin du. Leihoan txaloka igarotako hilabeteetan pareko bizilagunak ezagutzeko aukera izan dira, osasun arloko langileen kemena eredugarria izan da, etxe azpiko dendariaren zerbitzua ezinbesteko bihurtu da eta enpresako garbitzailearen lana zein garrantzi- tsua den konturatzeko uneak eman ditu urteak.

Eguberriak bilkura eta hurbiltasunaren sinonimoak izan dira orain arte. Formatu murriztu eta segurtasun neurriak areagotuta ere, urteko egun magikoenen esentzia guztiz desagertzea ezinezkoa izango da. 2020. urteak bizitza hankaz gora ipini ostean, urteari merezi duen amaiera emango diote irundarrek. Urte berriak hilabeteetan zehar urrun egon sentitutakoengana berriro hurbildu eta aurten bidean galdutako berrionak itzuliko dituelakoan.

Luna
ileapaindegia

Sebastian Errazu Kalea, 5 - IRUN

k hirian utzitako irudien laburpena

Iñigo Bravo, Bravo Logistic enpresako zuzendari exekutiboa:

"Oporrak kamioiarekin Lesboseko migratzaileei

Iñigo Bravo Irunen egoitza duen Bravo Logistic enpresako zuzendari exekutiboa da. Udako hilabeteetan kamioilarien oporrak egin ostean, urri inguruan motorrean herrialde ezberdinak ezagutzeko oporrak hartu ohi ditu. Pandemiak oporretako planak zapuztu ostean, gertakari segida baten ondorioz enpresako kamioi hartu, Zaporeak elkarteak bildutako elikagaiekin bete eta Lesboserako bidea hartu zuen.

Nola bururatu zitzaizun zure kamioiarekin Lesboserа bidaiatzeko ideia?

Arraroa iruditu arren, pandemiak eragindako egoera honek bultzatu ninduen erabakia hartzera. Garraio enpresa bat dut eta urtean zehar bulegoan lan egiten dudan arren, udaran gidarien oporretan ordezkapenak egin ohi ditut. Hortaz, oporrak urri edo azaroan hartu ohi ditut. Motorrak eta bidaiatzea gogoko ditut, beraz, nire bizitzako zaletasunak uztartzen dituzten bidaiak antolatu ohi ditut. Pandemiaren egoerara egokituz oporrak nola antola nintzakeen pentsatzen ari nintzela, Zaporeak proiektuarekin loturiko seinale ugari jaso nituen, hau da, dirua biltzeko elkartearen itsulapiko bat ikusi eta handik gutxira egunkarian Zaporeak elkarteak antolatutako diru-bilketaren berri izan nuen. Buruan ideiari bueltak ematen hasi nintzen, kilometroak begiratzen eta bidaiaren aurrekontua kalkulatzen. Zaporeak elkartean boluntario izandako lagun batekin hitz egin nuen eta hark eman zidan pausua emateko behar nuen azken bultzada. Izan ere, bidaia egiteko unea hori zen, enpresako gidari bat bajan zegoela aprobetxatuz bere kamioia erabil nezakeelako. Ideia argi izan nuenean Zaporeak elkartekoekin harremanetan jarri nintzen eta poztasun handiz jaso zuten nire proposamena. Hortaz, oporrak kamioiarekin Lesboseko migratzaileei janaria eramateko aprobetxatzea erabaki nuen.

Zure oporrak eta lanpostua ekintza solidario bat egiteko aprobetxatzea erabaki zenuen?

Bai, askotan gertatu ohi den bezala, ekintzak guztiz burutu arte askotan ez zara hartutako erabakiaren garrantziaz ohartzen. Boluntariotza ekintzak egitea beti ongi dago, baina, helmugara iritsitakoan konturatu nintzen egindako ekintzak zuen garrantziaz. Bost egun behar izan nituen Lesboseraino iristeko eta harrigarria izan zen jendeak nolako esker onarekin jaso ninduen. Telebistan irudiak ikusi edo irratian albisteak entzun ditzakezu, baina, bertara iritsi eta gauzak zure begiekin ikustea edo bizipen latzenak istorioen protagonistek zuzenean kontatzen dizkizutenean guztiz desberdina da dena.

Guztira, 23 janari tona eraman zenituen zure kamioian Greziako uharteraino, ezta?

Kamioian eramandako janari guztia Bizkaian antolatutako janari bilketen emaitza izan zen. Bildutako janaria arroza, pasta, kontserba-latak eta olioa izan ziren, besteak beste. Izan ere, bereziki harrera ona izan zuen janari bilketa hark bizkaitarren artean. Lesbosera iritsi nintzenean ikusi nuen Zaporeak elkarteak egunero 2.000 menu baino gehiago prestatzen dituela. Hortaz, eramandako janari guztiak haien eguneroko bazkaria prestatzeko ezinbestekoa zela ikusi nuen, egunero jan behar baitute.

Bidaia berezi honek urduritasun asko eragin zizkizun bideari ekin aurretik?

Hasieran jendea harritu egiten zen. Pandemiarekin edo Italiako edo Greziako mafiekin kontuz ibiltzeko esan zidaten askok. Azken finean, bidaiatzeko ohitura daukat eta gatazkatsuak izan daitezkeen leku askotan egondakoa naizenez, leku guztietan jende jatorra dagoela erakutsi dit bizitzak. Jendeak arriskuen inguruan hitz egiten dizu, baina, edonon bihotz oneko pertsonak daude eta zure bidetik ateratzen ez bazara, ez duzu zertan arazoak izan.

Pandemiaren eraginez bidaia ohi baino konplikatuagoa izan zen?

Zaporeak elkartearen protokoloak ezartzen duenez, bidaia egin aurreko 72 orduetan PCR proba bat egin behar nuen. Protokoloak eskatu bezala proba Irunen egin eta emaitza negatiboa izan zen. Gauza da, Europatik bidaiatzerako orduan mota horietako probekin eskuratutako baimenek 72 orduko balioa dutela, beraz, Greziara iristerakoan Irunen egindako proba jada ez zen baliagarria izango. Hala ere, garraiolariak Europako legediaren arabera, ez dugu zertan arau hori bete behar, oinarrizko sektore gisa kontsideraturik gaudelako. Dena dela, Italian zein Greziatik igarotzeko erregistroa egin behar dugu, atzerritar gisa bertatik igaroko garela aipatuz, zerbait gertatuko balitz gure datuak izan ditzaten. Graziako Patraseko portura iritsi nintzenean kanpamendu militar antzeko bat topatu nuen. Egia esan, ez nuen halakorik espero eta bertan lanean zeuden mediku eta erizainek serologia proba egin zidaten "lurralde arriskutsu" batetik nentorrelakoan. Izan ere, Grezia momentu hauetan hankaz gora dagoen lurraldea dela esan ohi dute askok, baina, portura iritsi bezain laster zerbitzu horrekin topatzea atentzioa deitu zidan. Lesbosera iritsi eta distantziak errespetatuz kamioia deskargatu ostean, 4 eguneko konfinamenduan gorde behar izan nuen hotelean badaezpada. Lau egun horiek igarota, Zaporeak elkartearen sukaldean lanean hasi nintzen.

Zein izan zen Lesbosera iritsi zinenean aurkitu zenuen egoera?

Migratzaileekin zuzenean hitz eginez ikusi nuen zein zen benetako egoera. Jende haien etxeetatik beldurrarengatik ateratzen dela ikusi nuen. Gehienak Siria, Afganistan eta Iranetik alde egindakoak ziren eta Turkia osoa zeharkatu ostean iritsi dira Greziara. Ihes egin aurretik zoriontsuak ziren haien etxe eta bizitzekin, baina, heriotza eta gerra saihesteko ihes egiteko beharrean aurkitu dira. Mafia turkiarrek txalupetan sartu eta

Lesboseko uharteraino iristen laguntzen diete. Smiratik Lesbosera ordubeteko bidea dago soilik. Migratzaileak Lesbosera iritsitakoan Europan sartu eta haien helburua lortu dutela uste dute hasieran. Lesbosen, ordea, iheslari-esparru batean sartu eta zer jan, nun lo egin behar duten, zer jantzi eta noiz atera daitezkeen agintzen diete bertan. Asteburuetan, adibidez, ezin dira esparrutik atera. Duintasun guztia galtzen dute horrela, nahiz eta ikasketak dituen jendea izan edo zu eta ni bezalako jendea izan. Jaiotza tokiak markatzen ditu gure eta migratzaileen egoeraren arteko diferentziak.

Ingelesa ikasi nahi duzu?
- Cambridge azterketen prestakuntza emaitza paregabeekin.
- Metodologia dinamikoa eta eraginkorra.
- Irakasle natiboak.
- Prezio erakargarriak.
- Teknologia berrien erabilera.
- EEBBtan eta Irlandan udako egonaldiak.
WELCOME School of English
943 61 30 61
Gipuzkoa hiribidea, 2. zbk -1 eskubi. IRUN
welcome@welcomeshool.es

janaria eramateko aprobetxatzea erabaki nuen”

Moriako iheslari-esparruaren sutea gertutik ikusteko aukera izan zenuen, ezta?
Bai, Zaporeak elkartearen sukaldea Mitilene hiriburuaren kanpoaldean kokatuta dago. Motorrak atsegin ditudanez motor bat alokatu nuen bertatik mugitu ahal izateko eta errepidetik nindoala Moria herriaren seinalea ikusi nuen. Atzera egin eta bide hori hartzea erabaki nuen. Iheslari-esparruaren eremura iritsi nintzen eta guztiz erreta zegoen muino bat ikusi nuen. Zelaiak hemen inguruan baratzetan ikusten diren txabolen arrastoez eta erretako olibondoez beterik zeuden. Harrigarria iruditu zitzaidan eremu horretan hainbeste familia eta pertsona baldintza negargarrietan bizi izan zirela ulertzea. Edozein lekura begiratzen zenuela ikusitakoa samingarria zen, errauts, pintaketa eta zerion usain txarraren ondorioz. Hilabeteak ziren iheslari-esparrua erre zenetik, baina, erre usain asko zegoen eta bertan oraindik jendea bizi zela ikusi ahal izan nuen.

Malen Garmendia irundarrak kontatu zidanez, Moria erre zenean bertan bizi ziren pertsonek errepide nagusitik Mitelene hiriburura iristeko bidea hartu zuten. Hiru egunetan zehar errepide bazterrean kanpatu zuten irtenbide baten esperoan. Hiru egun horietan zehar ACNUR eta Greziako Gobernuak lankidetzan behin-behineko kanpaleku bat eraiki zuten, baina, ezinezkoa zen bertan 7.000 pertsonentzako tokia sortzea. Orain eremu berri horretan bizi dira, poliziaren kontrolpean. Dena dela, orain dela gutxi haizete batek kanpaleku guztia altxatu eta urez bete du, beraz, baldintza negargarrietan bizi dira oraindik.

Bidaian gidari lanak egiteaz gainera, sukaldean laguntzeko aukera izan zenuen ere?
Bai eta bertan konturatu nintzen nire ingeles maila oso mugatua zela, sukaldean lan egiten zuten migratzaileekin hobeto komunikatzeko faltan bota bainuen hizkuntza gehiago menperatzea. Izan ere, bertan ezagutu nituen siriar edo afganiarrak ni baino hobeto moldatzen ziren ingelesaren eta ziurrenik ni baino baliabide gutxiago izan zituzten hizkuntza ikasteko. Bi edo hiru sukaldari arduratzen dira lapiko erraldoi batzuetan janaria prestatzeaz. Gainontzekoek barazkiak zuritu edo txikitzen laguntzen genuen eta horri esker izan nuen migratzaileekin zuzeneko harremana izateko aukera. Mugikorrei esker haien aurreko bizitza edo bizilekua nolakoa zen erakusten zidaten. Atentzioa deitu zidan bertan Afrika mendebaldetik etorritako jende asko topatzea, izan ere, Europara Marokotik sartzen zirela uste bainuen. Gauza da Afrikako herrialde askok Turkiara bidaiatzeko ez dute bisarik eskatzen. Hortaz, Senegal edo Kamerun bezalako herrialdeetatik Turkiaraino hegazkinez bidaiatzea erabakitzen dute, ostean, Turkiatik Europara sartzen saiatzeko. Haietako askok frantsesa zekitenez eta nik frantsesa hitz egiten dudanez, errazagoa izan zitzaidan inguru horretako migratzaileekin komunikatzea. Oso jendea jatorra ezagutzeko aukera izan nuen, benetan esker onekoak ziren pertsonak. Kontatutako istorioak sinestezinak ziren, bata beste baino harrigarriagoak.

Lesbosera iritsitakoan kasualitatez irundar batekin topo egin zenuen, ezta?
Berarekin lehen kontaktua WhatsApp bidez izan nuen, Zaporeak elkartearen egoitzara iristeko jarraibideak eman zizkidan eta. Hitz egiten hasi ginenean ez nekien bera irundarra zenik, aurrez aurre elkar ezagutu genuen arte. Lesbosera iritsi eta neska oso jator eta atsegina aurkitu nuen. Uhartera iritsi eta hasieran gauza asko ulertzen ez nituenez, berak asko lagundu zidan bertako egoera eta elkartearen funtzionamendua azalduz. Txundigarria iruditu zitzaidan Zaporeak elkarteko koordinatzaile bezala egiten zuen lan guztia ikustea. Izan ere, egunero egin beharreko lana da, inolako jai egunik gabe jendeari jaten eman behar zaiolako. Janaria iheslari-esparru guztietara eramateko lan handia egiten du, gidari gutxi dituzte eta. Siriar edo afganoek gidatzen dakite, baina, ezin dira Grezian gidabaimenik gabe gidatzera arriskatu. Horregatik, goraipatzekoa iruditzen zait Malene Garmendiak bertan egiten duen lana eta Irunen ohorezko hiritar izendatu beharko luketela uste dut.

Migratzaileen bizipenak eta istorioak zuzenean entzutea hunkigarria da?
Bai, zeharo desberdina da gauzak pertsona ezezagun batek edo komunikabideetan entzutea. Istorio horien protagonistak ezagutzen dituzunean, aldiz, kontatutakoak beste zentzu bat hartzen du eta zure lagunei kontatzen dizkiezunean zalantza izpirik gabe sinisten zaituzte. Umiltasun sendaketa egitea bezalakoa dela esango nuke, Done Jakue bidea egin duten erromes askok helmugara iristerakoan izan ohi duten sentsazio berarekin alderatuko nuke. Gogobetetasun handia eragiten dizun ekintza da, batez ere, bertan ezagututako pertsonen esker onarengatik. Horri esker, bertan dugun kontsumismoaz jabetu edo benetan garrantzitsuak diren gauza arruntez ohartzen zara.

Komunikabideek kontatutakoa bertako errealitatearen erakusle zuzenak dira?
Ez, iristen zaigun informazioa guztiz manipulatuta dagoela esango nuke. Sentsazionalismoa eragiten duten irudiak partekatzen dira, benetako errealitatearen ordez. Tartean interes ezberdin asko daude. Erakutsitakoa baino, askoz gogorragoa da Lesbosen bizi duten egoera.

Lehen esperientziaren ostean, ekintza gogoangarria noizbait errepikatzea pentsatu duzu?
Bai, batetik, Zaporeak elkartearekin elkarlanean jarraitu nahi dudala argi eta garbi dut. Bidaiaren amaieran elkarteko arduradunei adierazi nien moduan, noizbait garraioarekin loturiko zerbaitetan laguntza beharko balute nirekin harremanetan jarriz gero, ahal dudan guztian lagunduko diet. Nik pertsonalki berriro bidai hori errepikatuko banu, ziurrenik, lagun baten konpainian egingo nuke bigarren bidaia. Nirekin batera bidaia egin nahi duten lagun asko dauzkat, baina, lehen bidaia erronka gisa barrik egitea erabaki nuen. Azken finean, Zaporeak elkartea laguntzeko modu asko daude eta bidai honek baieztatu dit edonon bihotz oneko pertsonak daudela. Haiei gertatutako guri ere gerta dakigukeela argi ikusi dut. Urrutiegi joan gabe, Irunen bertan migratzaileek egun bizi duten egoeraren adibideak dauzkagu eta irundarrei migratzaileekiko beldurrik ez izatea eskatu nahiko nieke, bizimodu duhin eta hobe baten bila dabiltzan pertsonak baino ez dira eta.

Lea Etxebarrieta, errugbi jokalaria:

“Oso zaila da emakumeen errugbi talde berria sortzea”

Lea Etxebarrietak errugbi jokalariak Eibarreko taldearekin Ohorezko Mailan jokatuko du aurtengo denboraldian. Aldi berean, bigarren taldeko entrenatzailea izango da. Fisikoki momentuz Eibarren jokatu arren, Etxebarrietak buruan du Txingudi Errugbi Klubean ahal bezain laster emakumezkoen taldea sortzeko helburua.

Aurtengoa ez da Ohorezko Mailan jokatzen duzun lehen urtea izan?
Ez, duela hiru urte hasi nintzen Madrilen eta bi denboraldi jokatu nituen beraiekin. Sekulako esperientzia izan zen eta asko ikasi nuen. Horri esker Eibarrekin jokatzeko deitu naute.

Txingudi Errugbi Klubean talde femeninoa osatzeko zailtasunak izan dituzue beti?
Bai, oso zaila da emakumeen errugbi talde berria sortzea. Batzordean sartu eta ahaleginak egin arren, zaila izaten jarraitzen du. Horregatik, Irun eta Hondarribiko neska batzuk Hernaniko taldearekin batera jokatzen dute, beste batzuk, aldiz, Donostiko Bera Bera klubean. Klub berriak sortzeko erraztasunak ematen hasi dira, beraz, ikusiko dugu pandemia igaro ostean talderik sortzeko aukerarik dugun.

Beraz, kluben arteko harremanak onak dira zentzu horretan?
Bai, kluben araberako da hori, baina, aipatutako hauen artean harreman ona dago.

Zer egin daiteke errugbian ere emakumeen presentziak gora egin dezan?
Emakumeen ikusgaitasun kontua da. Espainiako taldeak sailkapenean gora egin ostean, komunikabideetan gehiago agertzen da kirola. Emakume askok ez dute errugbia praktikatu nahi kirolak zertan datzan ez dakitelako. Ez da guztiok hasieran imajinatzen dugun kirol bortitza, nahiz eta ezinbestean jokalarien arteko kontaktua dagoen.

Erreferenteen sorrerak kirolaren zabalpena lagun dezake?
Horrek asko laguntzen du, adibidez, Ordiziako bi jokalarik Instagramen jarraitzaile asko dauzkan kontua dute eta, horrela, kirol honi zabalpena ematen laguntzen dute.

Zu zeu Txingudiko erreferente izan zaitezke errugbiari dagokionez, ezta?
Bai, esaterako, eskoletara kirolaz hitz egitera hurbiltzen gara eta edonolako emakumeek ere errugbira jokatu dezkaegula erakusteko ahalegina egiten dugu.

Kirola ezagutu ostean, errugbiarekiko interesa handitu egiten da?
Bai, dudik gabe. Kirola probatu ostean askok onartzen dute errugbia ez dela uste zuten bezalako. Zentzu horretan, pausu zailena Plaiaundiko pistara hurbildu eta kirola probatzea da. Hori egin osten, gehiengoa gurekin gelditzen da. 16 urte arteko neska-mutilek talde mistoetan jokatzen dute, beraz, mutilekin batera jokatzeko prest egon behar dira.

Zure kasuan, nola jaso zenuen Eibarreko taldearekin jokatzeko gonbidapena?
Betidanik Cristina Eibarreko entrenatzailearekin kontaktuan egon naiz. Aurreko denboraldietan proposamenak egin arren ezetz esaten nion. Aurten, ordea, egoera ikusita eta Ohorezko Mailan jokatzeaz gainera, bigarren mailako entrenatzaile izateko aukerarekin proposamena onartzea erabaki nuen.

“Jokalari bezala Ohorezko Mailari eutsi nahi diogu”

Entrenatzaile zein jokalari gisa, zeintzuk dira Eibarreko helburuak?
Jokalari bezala Ohorezko Mailari eutsi nahi diogu, izan ere, desberdintasun handia dago ohorezko lehen eta bigarren mailaren artean. Gainera, ahal den sailkapen altuena lortu nahi dugu. Bestetik, bigarren talde finko eta polit bat sortu nahi dugu, ordezko jokalariek osaturiko taldea izan ordez, talde sendo bat izan dadin.

Nolakoa izan zen maila goreneko debuta?
Emozioz beterik egon zen, urduritausn eta jokatzeko gogoz beteta egon zena. Badira proiektu hau aurrera ateratzeko 5 urtez lanean aritu diren neskak, beraz, haien ametsa nola gauzatu zen ikustea pozgarria izan zen gainontzeko jokalarientzat. Badira hobetu beharreko zenbait gauza, baina, presioa alde batera utziz partidua disfrutatu eta sufritu genuela esan daiteke.

Nolakoa izan zen zure talde ohiaren aurka jokatzea?
Oso arraroa izan zen, aurrean oso ondo ezagutzen nituen jokalariak nituelako, hau da, nire lagunak, baina, beraien aurka egiteko modua topatu behar nuen. Benetan arraroa da zure burua beste aldean ikustea, izan ere, partiduko argazkiak ikusterakoan konturatu gabe Cisneroseko jokalarien artean bilatzen nuen nire burua oraindik.

Partidua galdu arren, balorazioa positiboa egin zenuten?
Bai, izan ere, aurretik lagunarteko partidurik jokatzeko aukerarik ez dugu izan, beraz, oinarrizko akats batzuk egitea saiestezina izan zen. Zelaira sartu eta bakoitzak ahal zuena egin zuen. Partidu hori oinarritzat hartuta, hurrengoetan hobetu beharrezko gauza asko ikusi ditugu. Dena dela, gauza txikiak dira.

Zein mezu bidaliko zenuke Txingudi Errugbi klubeko batzordekide gisa?
Nire gomendio nagusia errugbia probatzea da. Izan ere, probatu arte ez da benetan kirol honek nola funtzionatzen duen ezagutzen. Horretarako, sare sozialetan kontuak dauzkagu klubaren inguruko informazio gehiago biltzeko edo interneten kluba bilatuz gurekin harremanetan jartzeko modua topatuko dute. Errugbia probatzeko asmoa duen edonor besoak zabalik jasoko dugu.

Gurutz Aginagalde, Bidasoa Irun klubeko presidentea:

“Erritmoa mantentzea izango da denboraldiko bigarren itzuliko helburua”

Bidasoa Irun taldeak 13 garaipen lortu ditu denboraldiaren lehen zatian jokatutako 17 partiduen artean. Bartzelonako taldearen aurka jokatutako azken partiduan urtea garaipenarekin amaitzea ezinezkoa izan bazen ere, jokalari bidasotarrek Gabonetan deskantsatu eta indarrak berritzeko aukera izango dute. Gurutz Aginagalde klubeko lehendakariak bigarren itzuliko erronkak errepasatu ditu.

Denboraldiaren lehen zatian garaipenarekin amaitzea ezinezkoa izan da azkenean?
Bai, talde bakoitza momentu diferente batean dagoela esango nuke. Bidasoari denboraldiaren lehen zatia luzea egin zaiola esango nuke. Oso ondo hasi ginen baina azkeneko partiduetara apur bat nekatuta iritsi garela esango nuke. Aldiz, Bartzelona urteko punturik onenean harrapatu dugu, hau da, “Final Four”-a jokatu aurretik. Hortaz, fisikoki taldea egokien behar duten momentuan topatu ditugu.

Orokorrean, zein balorazio egiten duzu denboraldiaren lehen zatiaz?
Oso positiboa izan dela esango nuke. 13 garaipen lortu ditugu eta soilik 4 partidu galdu ditugu, beraz, benetan pozik egoteko balantzea dela esango nuke. Bigarren itzulian antzeko ibiliz gero, sailkapeneko goiko postuetara iritsiko gara ziur.

Nola egokitzen ari da taldea pandemiak eragindako ezustekoetara?
Ahal den moduan. Denboraldia hasi eta gelditu ibili beharra ez da egokiena kirolarientzat erritmoa hartzeko, baina, ahal duten bezala egokitzen ari dira. Denboraldi hasieran lehen itzulian 17 partiduak jokatzeko gai izango ginela esan baligute, ez genuke sinetsiko hainbeste gertaera eta kasu positiboen artean. Zoriontzekoa da, batetik, haien profesionaltasuna eta, bestetik, taldekideen artean ez dela inolako kutsadurarik gertatu.

Lortutako garaipenen portzentajeak, lehen zatiko laburpen egokia egiten du?
Bai, oso datu esanguratsua da, batez ere, garaipen asko leku eta momentu zailetan lortu ditugulako, adibidez, Logroñon edo Iruñean. Partidu zailak aurrera atera ditugunez, balantzea oso positiboa da.

94/95 denboraldiko segidako garaipenen lorpena berdintzea ere lortu duzue?
Bai, urrezko garaileek lortutako emaitzak berdintzera iritsi garela esan nahi du horrek. Bartzelonarekin tituluengatik borrokatzea zailagoa da, baina, behintzat taldea sailkapenaren goiko mailan ibiltzeko gai dela erakusten ari da.

Asobal Kopa jokatzeko pasea lortu izanak lasaitasuna ematen dizue?
Asobal Kopa eta Errege Kopa jokatzeko sailkatu gara, hortaz, bigarren itzulian pandemiak bi kopak jokatzeko aukera ematea espero dugu. Tituluak lortu eta talde onenen aurka berriro jokatzeko aukerak izango dugu. Gainera, aukera hau dugun lehen aldia ez denez, taldeak izandako bilakaera egokiaren erakusle dira.

Urteroko hitzorduei kale egin gabe, minbiziaren aurkako borroka laguntzeko aukera topatu duzue?
Bai, atzeratutako Barçaren kontrako partiduan Bularreko Minbiziaren Aurkako Egunaren harira dirua biltzeko asmoa genuen eta horrela egin dugu. Aurreko urtean zaletuak ekimenaren parte izan ziren, baina, oraingoan ordea jokalariak arrosa koloreko kamisetekin janztea bururatu zitzaigun, ondoren, kamisetak enkantean jartzeko. Jendeari asko gustatu zaio kamiseta arrosa, nahiz eta Bidasoak betidanik kolore urdin edo horiz jokatu duen. Kamisetei esker bildutako diru guztia Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteari eman zaio %100ean.

Gabonetan zaletuengana hurbiltzeko San Juan plazan denda ireki duzue?
Erregeen eguna pasa arte hor egongo gara eta horrelako erabaki bat hartzea beharrezkoa zela uste dut. Izan ere, aurreko urtean Artalekun partiduen egunetan klubarekin loturiko materiala saldu ohi genuen, baina, aurten publikoa partiduetara etorri ezin denez, zaletuengana hurbildu eta gauzak erosteko aukera hau ematea garrantzitsua zela uste dut. Gauzak erritmo politean saltzen ari dira, hain zuzen ere, jada zenbat gauza agortu egin direlako eta hori seinale ona da.

Julen nebaren itzulerarekin, pertsonalki urte berezia izan da zuretzat?
Nebaren itzulera garrantzitsua izan da bai bazkide, klubeko lehendakari edo neba bezala. Eskubaloi munduko jokalari erreferente gisa eta bere itzulerarekin pozik gaude.

Eguberrietako atsedenaldiaren ostean, noiz itzuliko da taldea lanera?
Erregeak pasa bezain laster lanean hasiko gara berriro eta aurtengo mundiala zein jokalarik jokatuko duten ikusiko dugu orduan, bigarren itzulia prestatzen duten bitartean.

Zeintzuk dira denboraldiko bigarren zatiko helburuak?
Erritmoa mantentzea izango da denboraldiko bigarren itzuliko helburua. Bigarren itzulia lehengo zatia bezala egitea lortzen badugu, goian egotea lortuko dugu. Gainera, bazkideak Artalekura itzuli ahal izatea eta harrobia berriro lanean hasteko aukera izatea nahiko genuke, lehenbailehen normaltasunera hurbiltzen hasteko.

ESTUDIO FOTOGRAFICO GO VER™

Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100.2°
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Ondare eta Oskarbi elkarteek “Irun historia erraldoia” liburua publikatu dute elkarlanean

Liburua hiriko denda ezberdinetan edo Ondare elkartearen bitartez eskuratu ahalko da

Ondare eta Oskarbi taldeek “Irun historia erraldoia” liburua publikatu dute elkarlanean. Liburuan Ondare kultur elkartearen erraldoiak biltzeaz gainera, Irungo historiaren errepaso azkarra egiten da. Liburua idazteko elkarteak Oskarbi taldeko hainbat idazleen kolaborazioa izan du.

“Irun historia erraldoia” liburuan Ondare kultur elkarteko erraldoiak dira protagonistak. Erraldoien argazkietan oinarrituz, hiriarekin loturiko istorio, bitxikeria eta pasarte ezberdinak biltzen ditu liburuak eta bi urteko lanaren emaitza izan da. Izan ere, Iñigo Mangas Ondare kultur elkarteko presidenteak azaldu duenez, azkenaurreko erraldoien aurkezpenenaren ostean sortu zen liburu bat sortzeko ideia. Lehen ideia esku-orri bat publikatzea izan zen, baina, ideia eraldatu eta liburu formatuarekin argitaratu da azkenean.

Liburuan egun Ondare kultur elkarteak dauzkan erraldoi guztien inguruko informazioa irakur daiteke. Besteak beste, jenerala, zalditeriako kantinera, atxeroa, lastargina, Luis Mariano, Irugurutzetako meatzaria, mugazaina, trenbideetako langilea, amona baserritarra eta amabitxiaren dira argitalpen honetako protagonistak. Elkartearen erraldoi ezagunez gainera, pandemiaren ondorioz oraindik aurkeztu ezin izan diren elkartearen erraldoi berrien informazioa eta argazkiak biltzen ditu liburuak. Informazioaz gainera, liburua argazki eta zirriborroekin osaturik dago, elkartearen erraldoiekin loturiko historia laburbilduz. Iñigo Mangas Ondare elkarteko presidenteak adierazi bezala, “Irungo entitate eta norbanako ezberdinek parte hartu dute liburua osatzeko materialen bilketan”.

Ondare elkartearen erraldoietan oinarritua, baina, liburua Oskarbi taldea osatzen duten idazleen kolaborazioari esker argitaratu ahal izan da. Izan ere, eskualdeko idazle ugarik idatzitako testuekin osatu baita liburua. Bakarne Atxukarro idazleak azpimarratu duenez, “oso lan polita izan da, proiektua aurrera ateratzeko hiriko bi elkarte batu baikara”. Batura horri esker, Iñigo Mangasek adierazi duenez, testuen idazleen artean horrelako izen irundarrak aurkitu daitezke: Mikel Aia, Barkarne Atxukarro, David Barón, Felipe Cambon Pereña, Javier Gil, Eva Huerba, Román Huarte, Juanjo Peña, Luis Sagüés, Aitor San Martín, Itziar Sistiaga, Mateo Vergara eta Izaskun Zubialde.

Hiriko gertakarien adierazle

Bakarne Atxukarro eta Iñigo Mangas bat etorri dira Ondare elkarteko erraldoiak hiriaren historiaren gertakariak laburbiltzeko modu aproposa direla adierazterako orduan. Hain zuzen ere, erraldoiak begiratuz Irungo iragana markatu duten hainbat gertakari oroitu daitezke. Era berean, Irunen iraganarekin loturiko pasarte berezienak etxeko txikienei erraldoien bitartez hurbiltzeko modu aproposa izan daiteke. Zentzu horretan, Irundik kanpo bizi diren horientzat Ondare eta Oskarbi elkarteek elkarlanean sortutako proiktu hau bereziki erakargarria izan da. Bakarne Atxukarrok azaldu duenez, “kanpoan bizi diren irundarrei haien haurtzaroaren zati bat gogoratzen lagundu diegu”.

Oskarbi elkarteko idazleak adierazi duenez egun Irunen bizi diren hiritarrentzat “Irun historia erraldoia” liburua bereziki atsegina izan daiteke. Izan ere, irudiz lagundutako testuen bitartez hiriaren iragana eta gertakari ezberdinak ezagutu daitezke testu irakurterrazen bitartez. Atxukarrok nabarmendu duenez, liburua “bihotza ukitzen duten” istorioez osaturik dago, argitalpena esperantza eta ilusioz idatzia izan dela ziurtatuz. Lana atsegin handiz egin dutela azalduz, Bakarne Atxukarrok adierazi du “idazleek emaitza guri lana egitea gustatu zaigun bezain beste gustoko izatea espero dugu”.

“Irungo entitate eta norbanako ezberdinek parte hartu dute liburua osatzeko materialen bilketan”
Iñigo Mangas, Ondare kultur elkarteko presidentea

“Oso lan polita izan da, proiektua aurrera ateratzeko hiriko bi elkarte batu baikara”
Bakarne Atxukarro, Oskarbi taldeko idazlea

Liburua eskuratzeko bideak

“Irun historia erraldoia” liburua hiriko leku desberdinetan eskuratu daitke 20 euroren truke. Zehazki, Beds koltxoi-dendan (Aldapeta kalea, 1 zk.), Casa Mirón (Colón pasealekua, 7 zk.) eta Kiosko 33 (Argentinar Errepublika kalea, 13 zk.) dendetan eskuratu daiteke. Hortaz gain, Ondare elkartetik ere zuzenean salduko da. Iñigo Mangas Ondare elkarteko lehendakariak azaldu duenez sortzaileek haien kabuz editatutako liburua da, “lan askori” esker argia ikusi ahal izan duena.

Aurkezteko aukeraren zain

Ondare kultura elkartea erraldoien familia handituz doa. Azken eransketak Bidasoa klubaren erraldoia eta erromatar bikotea izan dira. Erraldoiak amaituak izan arren, pandemiaren ondorioz, ordea elkarteak ez du erraldoi berriak aurkezteko denborarik izan. Bidasoako erraldoia klubak duela 25 urte, 94/95 denboraldian, Europako txapeldun titulua lortu zuela ospatzeko ekitaldien barnean aurkezteko zen. Osasun krisialdiaren ondorioz, aldiz, ospakizun ekitaldi horietako asko bertan behera gelditu ziren. Erromatar bikoteak, berriz, hiriaren iragan erromatarrarekin lotura zuzena du eta, era berean, haien aurkezpena osasun krisialdiarengatik baldintzatuta egon da.

Pandemiak indarrak galdu eta erraldoiak berriro hiriko kaleak dantzatu bitartean, liburu honek itxaronaldia atseginago egiteko proposamena dakar.

Elatzeta LH4



IRUNEN TXANGO BATERAKO PROPOSAMENA

Laugarren mailako ikasleok Aiako Harriaren inguruan honako ibilaldi hau egin genuen. Asko gustatu zitzaigun eta zuei egitea proposatu nahi dizuegu, animatu!

Lehenik autobusean Ola sagardotegira joan ginen. 2 minutu pasa ondoren ibiltzen hasi ginen. Gogorra egin zitzaigun, aldapa baitago. Baina lasai, motza da! Bidean Ingurutzetako labeak ikus daitezke. Ondoren tren zaharraren tunelak pasa genituen.Kontuz, bertan saguzarrak daude! Gero hamaiketakoa jan genuen errekaren ondoan, oso toki polita da, txorien txioekin. Baina arretaz ibili behar da errekara erori gabe. Han batzuek azeri bat ikusi zuten, eta ikaskide bati beldar bat itsatsi zitzaion galtzetan. Gero, berriro ibiltzen hasi ginen gora eta behera. Orduan bi arrabio ikusi genituen.

Ibili eta ibili, errepidea ikusi genuen, eta korrika bizian pasa genuen. Jaten hasi ginen, batzuek kolunpioetan jolasten zuten bitartean. Zaldiak ikusi genituen, eta zaldiak kontrolatzen saiatu ginen. Bazkaria egin eta zaldiekin jolastu ondoren, bertatik autobusera bueltatu ginen. Primeran pasa genuen.

LH 4. MAILA B

Denbora-pasak

7 hitz: Frutak

N	P	B	A	N	A	N	A	K	U	V	R	Y	Z
T	Z	C	U	F	O	Y	L	W	S	H	W	W	Z
V	Q	T	L	X	E	X	P	L	F	O	D	R	W
S	A	G	A	R	Q	X	J	M	E	H	M	K	Q
J	J	G	Y	R	W	F	I	M	L	H	A	G	F
V	J	G	H	Y	N	H	K	X	T	L	H	M	R
H	P	Z	O	F	V	O	X	F	B	G	A	A	T
W	K	V	L	H	G	T	F	T	J	O	T	S	F
A	N	Z	A	F	F	L	J	U	T	X	S	U	K
S	R	J	R	X	B	P	Q	P	Q	Q	N	S	M
B	W	A	A	D	X	K	K	L	V	K	F	T	B
E	F	B	N	N	L	G	J	I	W	T	K	A	Z
G	K	T	J	B	S	R	L	K	W	G	Y	W	V
U	D	Z	A	Z	D	F	Q	A	D	I	H	A	S

Sagar, laranja, mahats, kiwi, masusta, banana, aran

		3	7		6			4
	8		2					
				5	9		6	3
	2		8		3		5	
3		5		6	2			7
	6		4		5			
		7	3				1	
	5						2	
	3	8						9

IRUNABAR
IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEA

TEKNORLOGIAK

Doinua: Zer da gaur Donostian
Egilea: Manu Goiogana Bengoetxea

1)
Nahiz eta ezagutu
asmatzaile legez
Tales, Einstein, Edison
edo Arkimedes,
erdiak ezkutatu
dizkigute berez;
pertsona asko jardun
ziren gogo trebez
ez zirenak gizonak
zuriak ere ez.

2)
Ada Lovelace aditu
zen teknologian,
Babbage-en laguntzaile
zena, teorian.
Munduak eduki du
ahazteko zorian...
Lehen programatzaile
gisa historian
gorde behar genuke
gure memorian!

3)
Mária Telkes ere
ez da maiz agertu,
eguzki-energia
zuena ikertu.
Lehen eguzki-labea
utzi zigun gertu
eta landako zenbait
herrixka suspertu...
Argindarra dugunok
zergatik eskertu?

4)
Zaila da Hedy Lamarr
izarra iluntzen:
aritu zen uhinak
sumagaitz bihurtzen,
seinale sekretuen
teknika taxutzen;
Wifia ere hari
esker garatu zen...
eta zergatik ez du
inork ezagutzen?

5)
Jakin nahi duzunean
non zauden benetan
Gladys West-ekin
senti zaitezke zorretan:
funtsezkoa izan zen
ikerketen bueltan
gaurko GPSen
matematiketan,
baina ezin kokatu
gure orbitetan.

6)
Margaret Crane-en bizitzaz
hastean galdezka
ariko ginateke
galderei iheska;
ba hark asmatu zuen,
protestak protesta,
etxean egiteko
haurdunaldi testa...
gizon zuriarentzat
huskeria, ezta?

7)
Ur edangarria da
askoren helburu
Deepika Kurup-ek erraztu
duena seguru:
Eguzki energia
hartuz iturburu
ura arazten duen
teknika sortu du...
Merezi bezainbeste
eskertu al dugu?

8)
Maitane Alonso-ri
jarrita begira
makina bat sortzeko
gai izan zen, tira:
bertan elikagaiak
kontserbatzen dira
jasangarritasuna
hobetuz, argi da...
NASAn ezaguna da,
hemen ez dakit ba...

9)
Sortzen diren heinean
zenbait beharrizan
jartzen gara erantzun
onenen peskizan.
Emakume ugari,
aipatuen gisan,
nahiz eta nahita utzi
dituzten gerizan
ez dezagun sinetsi
ez zirenik izan!

La Salle LH6

GUREAK

Gureak-en desgaitasuna duten pertsonak lan egiten dute. Sektore desberdinak daude:
INDUSTRIA: Kableak prozesatzen dituzte,elektronika, operadore logistikoa,plastiko injekzioa eta muntaia eta eraldaketak egiten dituzte.
ZERBITZUAK: Elikadura eta osasuna, lorezaintza, garbiketa eta ikuztegia, saltokien kudeaketa...
MARKETING: Harremanetarako marketing-a, eraldaketa digitala, E-commerce eta BPO egiten dute.
ITINERARI: Prestakuntza, orientazioa, enpresentzako enplegu zerbitzuak, zerbitzu okupazionala eta pauso berriak egiten dituzte.

Gure kasuan, 2019ko azaroaren 3an, Irunen dagoen Gureak-eko industria tailerrera joan ginen.Han, lau pertsona ezagutu genituen: Iker, Marina, Fran eta Ana. Hauek desgaitasuna dute. Tailerra bisitatzen bukatu genuenean, haiekin hitz egiten egon ginen.Beraien lanarekin harrituta geratu ginen.Oso gustura egon ginen eta orain beste modu batez ikusten ditugu gauzak.
Askotan pentsatzen dugu desgaitasuna duten pertsonek gauzak gu baino okerrago egiten dituztela, baina ia beti gezurra da esaten duguna. Denok eskubideak ditugu zerbait lortzeko eta horretan esfortzua jartzen badugu, azkenean lortuko dugu.

Adriana Cienfuegos, Iker Gómez, Iker González (La Salle Irun)

Martindozenea Gaztelekutik murriztapenetara egokituz zerbitzua eskaintzen da

Konfinamenduko etenaldiaren ostean, Martindozenea Gaztelekua aurrez aurreko zerbitzua eskaintzen hasi da berriro. Alba Aranguren, Ane Calvo eta Amaia Izeta dinamizatzaileek Gaztelekuaren funtzionamendua azaldu dute.

Zein zerbitzu eskaintzen da Martindozenea gaztelekutik?
Irungo Gaztelekua Elizatxo hiribidean kokatuta dago, La Salle ikastetxearen ondoan eta 12-17 urteko gazteei aisi sozio-hezitzailea eskaintzen diegu. Horretarako, asteartetik larunbatera irekitzen dugu arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Bukaera ordua, aldiz, arra- tsaldeko 20:00etan izan ohi da, ostiral eta larunbatetan izan ezik, Martindozenea Gaztelekuaren ateak gaueko 21:00etan ixten baitira. Bertan, gu hirurak egon ohi gara eta Gaztelekuak eskaintzen dituen espazio eta baliabideak erabiltzeko aukeraz gainera, hilero ekintza eta tailer ezberdinak proposatzen ditugu.

Zein adineko gazteekin lan egiten duzue?
Orokorrean, 12 eta 17 urte bitarteko gazteekin. Gero bada bigarren zerbitzu bat, 18 eta 25 urte arteko gazteentzat, Konekta zerbitzua deituriko, baina, guk zehazki adin-txikiko gazteei zerbitzua eskaintzen diegu.

Nola egokitu zineten konfinamenduan zehar hiriko gazteei zerbitzua eskaintzen jarraitzeko?
Zerbitzua itxita egon da, baina, birtualki zerbitzua eskaintzen jarraitu dugu. Adibidez, Instagram bidez ekintza ugari antolatu ditugu edo bideo-deiak egin ditugu. Aktibo ibili gara gazteekin harremana mantentzen aldera eta, zerbait behar izanez gero, hemen jarraitzen genuela adierazi nahi izan genien.

Orain aurrez aurreko zerbitzua berreskuratu duzue. Nola moldatu zarete horretarako?
Urritik normaltasun berri honetara egokitu eta, protokoloak jarraituz, zerbitzua normaltasunez eskaintzen ari gara. Beti bezala, ekintzen eskaintza zabala eskainiaz eta ahal den heinean gazteen elkargune bat izaten ahalegintzen gara.

Gaztelekua leku segurua izan dadin neurri zorrotzak hartu dituzue?
Martindozenea Gaztelekua bere osotasunean leku segurua dela esan dezakegu. Izan ere, Gobernuak finkatutako osasun neurri guztiak betetzen ditugu. Esaterako, Gaztelekuko edukiera mugatuta dugu, sartu baino lehen Gaztelekura sartzen diren pertsona guztien tenperaturak neurtzen ditugu, aldiro-aldiro eskuak desinfektatzen ditugu. Gainera, Gaztelekuko materialen bat erabiliz gero, gauzak berriro gorde aurretik material guztia desinfektatzen dugu.

Gaztelekura sartu ahal izateko baimen-orria eskatzen da, zergatik?
Baimen-orri hori gazteak Gaztelekura sartu aurretik guraso edo tutoreek eta seme-alabek sinatu behar dute. Baimen-orri horren bitartez protokoloan zehaztutako guztia onartzen dutela sinatzen dute eta ezarritako arauak errespetatuko direla konpromisoa hartzeko modua da, besterik ez.

Hilero ekintza ezberdinak proposatzen dituzue. Nola antolatzen zarete horretarako?
Gazteei aisialdiko aukera ezberdinak eskaintzen ahalegintzen gara. Normalean ekintzak hilero antolatu ohi ditugu, baina, azkenaldian egitaraua hamabost egunero antolatzen ari gara, azken orduko neurri berrietara egokitzeko aukera izateko. Hortaz, orain bi astero datozen hamabost egunetan zehar egingo diren ekintzak aurkezten ditugu. Ekintza zein tailerren inguruko informazioa webgunean argitaratzen dugu, ekintzarekin lotutako xehetasun guztiekin: Hasiera eta bukaera ordua, non egingo den, ordutegia, zenbat pertsonentzako tokia dagoen, ... Gainera, Instagram eta Facebook sare-sozialetan Martindozenea Gaztelekuak eskaintzen dituen ekintzen inguruko informazioa ere partekatzen dugu.

Gazteartean Erakusketak Martindozenean hilero antolatzen den ekintza aipagarrienetako bat izan daitezke?
Bai, horixe. Hilabetean behin edo sei astero erakusketa aldatzen dugu. Erakusketa hauen helburu nagusia Irun edo inguruko artista gazteei espazio bat eskaintzea da. Horrela, haien lanak erakutsi edo erakusketa bat antolatzeko lehen aukera hori eskaini nahi zaie. Hilabetean behin erakusketa horren aurkezpena egiten dugu eta artistak gazteentzako tailer bat proposatzen du. Tailer horietan artistek lanen sorreretan erabilitako teknikak azaldu ohi dituzte eta gazteek emaitzak etxera eraman ohi dituzte.

Bestetik, Asexorate zerbitzua duzue?
Bai, hilabetean behin Raquel sexologoa Gaztelekura dator eta hemen bertan aholkularitza zerbitzua eta tailerrak eskaintzen dizkie gazteei. Hortaz gain, gazteek modu anonimoan egindako galderei erantzuten die.

Non aurki dezakete gazteek ekintzen inguruko informazioa?
Modu ezberdinak daude. Batetik, sare sozialak daude, gazteek asko erabiltzen dituzte guk geuk ere asko erabiltzen ditugu garrantzi handia baitute. Gazteei zuzenduta Instagramen ekintzen inguruko informazio guztia partekatzen dugu eta gurasoei zuzenduta, aldiz, Facebook-a gehiago erabiltzen dugu. Webgunean informazio guzti-guzti aurkitu daiteke. Gainera, hiriko eskolek guk antolatutako ekintzei zabalpena ematen laguntzen digute. Bestelako informazioa eskuratzeko, zuzenean jendea Gaztelekura hurbildu daiteke edo telefonoz deitzeko aukera dute ere.

Datozen hilabeteetan zehar nola lan egingo duzue?
Gaztelekutik lanean jarraitzeko asmoa duzue. Urritik martxan hartu dugu eta oso gustura gaude. Gazteek zerbitzuaren beharra zutela ikusi dugu eta lanean jarraituko dugu.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Eguberriak Martindozenea gaztelekuan

"Etxean" erakusketa bisitatu daiteke Gaztelekua urtarrilaren 8ra arte, Gazteartean Expo programaren barruan. Hortaz gain, erakusketaren bisita birtuala egiteko aukera egongo da iGazte edo Gaztelekuaren webgunearen bitartez.

Abenduak 31: Mendi irteera
Urteari agur esateko mendira igotzea baina plan hoberik ez dago! 2020 urtea elkarrekin utziko dugu atzean Erlaitzetik dauden bistaz gozatuz! Ekintza goizeko 10:00etan hasiko da eta Irungo Udal Euskaltegitik aterako gara. Doako ekintza izango da eta izena emateko Whatsapp, Instagram edo korreora mezu bat bidali beharko da.

Urtarrilak 2, La Casa de Papel
La Casa de Papel telesaila ikusi duzu? Arratsalde honetan honi buruzko jolasetan arituko gara! Ekintza arratsaldeko 17:30etan hasiko da eta Gaztelekuan egingo da. Doako ekintza izango da eta izena emateko Whatsapp, Instagram edo korreora mezu bat bidali beharko da.

Urtarrilak 5, Digital Trends
Yunimat, Amaia Amunarriz eta Iban Garcia, gaur egun ezagunak egin diren "eduki sortzaileak" dira, eta Gaztelekuan izango ditugu arratsalde honetan, haien esperientziak lehen pertsonan kontatzeko. Instagramer, tik toker edo influencer izateari buruzko zuen galdera eta dudei erantzungo diete, eta gertutik haien egunerokoa ezagutzeko aukera izango duzue.

Bi saio egingo dira, bata 16:00etan eta bigarrena 18:00etan. Gaztelekuan egingo da eta parte hartzea doakoa izango da. Izena emateko Whatsapp, Instagram edo korreora mezu bat bidali beharko da.

iGazte itxita egongo da Gabonetan

iGazteren bulegoa itxita egongo da 2020ko abenduaren 21etik 2021eko urtarrilaren 7ra izango da.

Barkatu eragozpenak!

ikas bidasoaldea
Formaziorako eta orientazio zerbitzua

Doktorego aurreko ikerketarako Fulbright beken 2021/2022 deialdia

Ameriketako Estatu Batuetak unibertsitateetan eta ikerketa zentroetan 2021eko ekainetik 2022ko abendura bitartean sei eta hamabi hilabete bitarteko denboraldi batean edozein diziplinatako doktorego aurreko ikerketa egiteko bekak.

Zer eskakizun bete behar dituzte hartzaileek? Espainiar herritartasuna izatea, goi mailako titulazioa izatea, doktoregoa Espainian egiten ari izatea eta Ameriketako Estatu batuetan doktorego aurreko ikerketa proiektuak egin nahi izatea.

Epea: 2021eko urtarrilaren 12an

Bidasoaldeko Ikaskuntzako Bitartekaritza Zerbitzua

Ikaskuntzako Bitartekaritza Eusko Jaurlaritzako zerbitzu publikoa eta doakoa da. Bere helburua 16 urte eta gehiagoko pertsonen artean prestakuntza sustatzea da, haien egoera soziolaborala edozein izanda ere.

Bitartekaritza zerbitzuan edozein ikaskuntzari buruz informatzen dugu.

Gaurko eta geroko prestakuntza interesen azterketa, adierazpena eta zehaztapena. Bakoitzaren etengabeko prestakuntzaren Ibilbidearen plana egitea.

Prestakuntza nahiei eta beharrei erantzuna emango dion informazioaren bilaketa.
Kontaktua: Virginia Garmendia Alonso, ikasbidasoaldea@ikaslangipuzkoa.eus helbide elektronikora idatziz edo 943 89 92 14 telefono zenbakira deituz, 98692 luzapenarekin. Zerbitzua Plaiaundi Institutuan jokatuta dago, Eraikin nagusiko 1. solairuan 103. zenbakian.

Ordutegia: Astelehenetan 11:00etatik 18:00etara eta asteartetik ostiralera 8:00etatik 15:00etara.

Informazio gehiago: Twitter-en @Ikasbidasoaldea kontuan edo Facebook-en Bitartekaritza Bidasoaldea orrialdean.

CBA Udal Liburutegiak ordutegi berezia izango du Gabonetan

Abenduak 31, osteguna
Liburutegia goizez irekiko da 9:00etatik 13:00etara.
Urtarrilak 1, ostirala
Egun honetan liburutegia itxita egongo da.

Urtarrilak 2, larunbata
Liburutegia goizean 9:00etatik 13:00etara eta Arratsaldean 15:00etatik 20:00etara.

Urtarrilak 3, igandea
Liburutegia goizez irekita egongo da 9:00etatik 13:00etara.

Urtarrilak 6, asteazkena
Egun honetan liburutegia itxita egongo da.
Ordutegi berezia izango duten egun horietan liburutegiko ikasgela erabili ahalko da bakarrik.

Gainontzeko egunetan liburutegia ohiko ordutegian irekiko da. Liburutegiko ikasketa gela erabili ahal izateko tokia aurretik erreserbatzea beharrezkoa izango da.



Urtarrilak

2

Urte berriko kontzertua

Zer: Luis Mariano Orkestraren eskutik Urte Berriko kontzertua.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 18:30etan.

Prezioa: Bazkideek 15 euro, bazkide ez direnek 21 euro eta 30 urtetik beherakoentzat 5 euro.

Sarrerak: Internet bidez udal sarreren salmentarako webgunean, Irungo turismo bulegoan eta Amaia Kultur Zentroaren leihatilan ikuskizunaren egunean bertan.

3

Irun Erromatarra Tourra

Zer: TIR aplikazioaren bitartez bisita gidatua hiriaren iragan erromatarrera, Irungo kaleetan eta Ama Xantalen ermitan barrena.

Hasiera: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordutegia: 11:00etan hasi eta 12:30ak arte.

Prezioa: Helduak 5,50 euro eta 6-14 bitarteko haurrek 3,85 euro.

Hitzordua eskatzeko: Deitu 943639353 telefono zenbakira.

Oharra: Bisitek edukiera mugatua izango dute.

4ra arte

Erakusketa: Trenen Maketak

Zer: BAF 7301 elkarteak antolatua.

Non: Palmera Montero Gunean.

Ordutegia: Urtarrilaren 1ean itxita. Urtarrilak 2,3 eta 4, 17:30etik 20:00etara.

Sarrera: Doakoa.

5

Oiassortu

Zer: Marrazki lehiaketa, Oiasso Museo Erromatarrera sartu eta pieza bat edo gehien gustatutakoa margotzeko.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordutegia: Egun osoan zehar.

Prezioa: 2 euro.

Oharra: Neurri sanitarioak direla eta, parte-hartzaile bakoitzak marrazteko eta margotzeko bere materiala ekarri beharko du.

5

Errege Magoen Mezua

Zer: Ekialdeko Beren Maiestate Errege Magoen mezua.

Non: Irungo Udalaren Youtube kanalean.

Ordua: Arratsaldeko 20:30etan.

9

Eztena Irun aurkezpena

Zer: Euskara eta kultura ardatz dituen proiektu berriaren aurkezpena.

Non: Palmera Montero gunean.

Ordua: 10:30etan.

Izen-ematea: Ekitaldia parte hartzeko ziztakairun@gmail.com helbide elektronikora idatzi.

Informazio gehiago: Facebook eta Instagrameko @eztena_irun kontuetan.

Denbora-pasen emaitzak

5	1	3	7	8	6	2	9	4
9	8	6	2	3	4	5	7	1
4	7	2	1	5	9	8	6	3
7	2	9	8	1	3	4	5	6
3	4	5	9	6	2	1	8	7
8	6	1	4	7	5	9	3	2
2	9	7	3	4	8	6	1	5
1	5	4	6	9	7	3	2	8
6	3	8	5	2	1	7	4	9

GURE
GARIA
GURE
OGIA
EUSKAL
OGIA
GURE GARIA, GURE OGIA
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN
EUSKO LABEL GARIAZ EGINDAKO OGIAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN
PAN ELABORADO CON TRIGO EUSKO LABEL
EUSKO LABEL
IRUN
LA FÁBRICA DE MIGAS - Iñigo de Loiola, 4
Euskadi, sabor con sabor
hazi
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO